



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 25a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00112. Galdera, lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00113. Galdera, lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00114. Galdera, Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroaren finantzaketari eta edukierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00115. Galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez datozen bat emandako datuen batura eta 2024rako agertzen diren soldatako langileen gutzitza. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00116. Galdera, 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00117. Galdera, BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00118. Galdera, Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00119. Galdera, nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00120. Galdera, energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00121. Galdera, nitratoen aitzinean zaurgarriak diren eremuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00122. Galdera, Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-25/PES-00123. Galdera, Martzillan inauterian izandako gertaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 11-25/PES-00124. Galdera, Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

- 11-25/PES-00125. Galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa).. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- 11-25/PES-00126. Galdera, Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeko araudiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- 11-25/PES-00127. Galdera, Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00112. Galdera, lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00112), Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeko azterlan espezifikoari buruz (11-25-PEI-00122). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeari buruzko azterlana, Lagun Egiteko Animalien Atalak egindakoa, ez da eremu horretan ezarri beharreko zentro espezifikoak nolakoak izan behar den zehatz-mehatz aztertzen duen azterlan bat.

Zentro-eredu baten proposamena da, gutxi gorabeherako inbertsio- eta mantentze-kostuak jasotzen dituen, udalek nahitaez eman behar dituzten zerbitzuak eta instalazioek bete behar dituzten baldintzak aintzat hartuta, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera (7/2023 Legea, 19/2019 Foru Legea eta 94/2022 Foru Dekretua); izan ere, lurraldean ez dago baimendutako eta erregistratutako etxeko animaliak hartzeko zentrorik.

Jurramendiko Mankomunitateak eskatuta, Egapeludos elkarteak Lizarraldeko lagun egiteko animaliak hartzeko zentro bat ezartzeko eta mantentzeko aldeaz aurretik egindako azterlan bat berrikusi zen, eta horri buruzko oharra egin ziren.

2. Zentroak behar duen edukiera zehazteko erantzukizuna udal elkartuena da. Udal horiek beren beharren azterketa egin behar dute, datu errealean eta eguneratuetan oinarrituta. Azterketa horren arabera, zentroaren edukiera egokitu behar da, eta, horrekin batera, baita inbertsio- eta mantentze-kostuak ere.

3. Azterlanak inbertsio-kostuen hurbilketa aurreikusten du, kontuan hartuta lagun egiteko animaliak hartzeko zentroek instalazioei, ekipamenduari, baldintza eta betekizun higieniko-sanitarioei eta biosegurtasuneko dagokienez bete behar dituzten baldintzak, 94/2022 Foru Dekretuari jarraiki. Horretarako, bi mankomunitateak osatzen dituzten udalen antzeko biztanle-kopurua duten udalerrietan eraikitako lagun egiteko animaliak hartzeko zentroak eraikitzeko kostua hartu da kontuan, aintzat izan beharreko erreferentia baitira. Behin betiko kostuak mankomunitateek, premiak aztertu ondoren, agintzen duten proiektu teknikoaren arabera izanen dira.

4. Azterlanak zentroa mantentzeko gutxi gorabeherako kostuak jasotzen ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera udalek eman behar dituzten zerbitzuen arabera kalkulatu direnak. Aurreko kasuan bezala, kontuan hartu dira antzeko biziguneak dituzten beste zentro publiko batzuetako animaliak hartzeko zentroyen mantentze-gastuak. Beste gastu batzuk Animaliak Babesteko Nafarroako Gobernuaren Zentroko mantentze-datuen arabera sartu dira aurrekontuan (hornidurak, elikadura, etab.). Nolanahi ere, gastu horiek mankomunitateek egokitu behar dituzte zentroari ematen zaion behin betiko edukieraren arabera.

5. Dena den, inplikaturako udalek eremuaren azterketa xehatu eta zehatzagoa egin behar dute, haiek baitituzte eskumenak beren udalerrietan abandonaturako, konfiskaturako, galdutako eta babesik gabeko etxeko animalien kudeaketari begira, bai eta katu kolonien kudeaketari dagokionez ere.

6. Lagun Egiteko Animalien Atalak egindako azterlanak ezarpen- eta kudeaketa-kostuen gutxi gorabeherako aurreikuspena ematen du, eta Nafarroako Gobernuak toki-erakundeei bere eskumenak betetzen laguntzeko neurri gisa egiten da, baina helburua ez da ezarpen proiektua gauza-

tzea eta estali beharreko beharrak eta finantzaketa modua zehaztea.

Azaldutako guztiagatik, ez da egokia idatzizko galdera bakoitzean planteaturako gaiei erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00113. Galdera, lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanaren kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak lagun egiteko animalien zentroa Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako ezartzeko azterlanaren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00113), Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeko azterlan espezifikoari buruz (11-25-PEI-00122). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeari buruzko azterlana, Lagun Egiteko Animalien Atalak egindakoa, ez da eremu horretan ezarri beharreko zentro espezifiko nolakoa izan behar den zehatz-mehatz aztertzen duen azterlan bat.

Zentro-eredu baten proposamena da, gutxi gorabeherako inbertsio- eta mantentze-kostuak jasotzen dituen, udalek nahitaez eman behar dituzten zerbitzuak eta instalazioek bete behar dituzten baldintzak aintzat hartuta, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera (7/2023 Legea, 19/2019 Foru Legea eta 94/2022 Foru Dekretua); izan ere, lurraldean ez dago baimendutako eta erregistraturako etxeko animaliak hartzeko zentrorik.

Jurramendiko Mankomunitateak eskatuta, Egapeludos elkarteak Lizarraldeko lagun egiteko animaliak hartzeko zentro bat ezartzeko eta mantentzeko alde zuzenetik egindako azterlan bat berrikusi zen, eta horri buruzko oharrak egin ziren.

2. Zentroak behar duen edukiera zehazteko erantzukizuna udal elkartuen da. Udal horiek beren beharren azterketa egin behar dute, datu errealetan eta eguneratuetan oinarrituta. Azterketa horren arabera, zentroaren edukiera egokitu behar da, eta, horrekin batera, baita inbertsio- eta mantentze-kostuak ere.

3. Azterlanak inbertsio-kostuen hurbilketa aurreikusten du, kontuan hartuta lagun egiteko animaliak hartzeko zentroek instalazioei, ekipamenduari, baldintza eta betekizun higieniko-sanitarioei eta biosegurtasuneko dagokienez bete behar dituzten baldintzak, 94/2022 Foru Dekretuari jarraiki. Horretarako, bi mankomunitateak osatzen dituzten udalen antzeko biztanle-kopurua

duten udalerrietan eraikitako lagun egiteko animaliak hartzeko zentroak eraikitzeko kostua hartu da kontuan, aintzat izan beharreko erreferentea baitira. Behin betiko kostuak mankomunitateek, premiak aztertu ondoren, agintzen duten proiektu teknikoaren arabera izanen dira.

4. Azterlanak zentroa mantentzeko gutxi gorabeherako kostuak jasotzen ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera udalek eman behar dituzten zerbitzuen arabera kalkulatu direnak. Aurreko kasuan bezala, kontuan hartu dira antzeko biziguneak dituzten beste zentro publiko batzuetako animaliak hartzeko zentroen mantentze-gastuak. Beste gastu batzuk Animaliak Babesteko Nafarroako Gobernuaren Zentroko mantentze-datuen arabera sartu dira aurrekontuan (hornidurak, elikadura, etab.). Nolanahi ere, gastu horiek mankomunitateek egokitu beharko dituzte zentroari ematen zaion behin betiko edukieraren arabera.

5. Dena den, inplikaturako udalek eremuaren azterketa xehatu eta zehatzagoa egin behar dute, haiek baitituzte eskumenak beren udalerrietan

abandonatutako, konfiskatutako, galdutako eta babesik gabeko etxeko animalien kudeaketari begira, bai eta katu kolonien kudeaketari dagokionez ere.

6. Lagun Egiteko Animalien Atalak egindako azterlanak ezarpen- eta kudeaketa-kostuen gutxi gorabeherako aurreikuspena ematen du, eta Nafarroako Gobernuak toki-erakundeei bere eskumenak betetzen laguntzeko neurri gisa egiten da, baina helburua ez da ezarpen proiektua gauzatzea eta estali beharreko beharrak eta finantzaketa modua zehaztea.

Azaldutako guztiagatik, ez da egokia idatzizko galdera bakoitzean planteatutako gaiei erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00114. Galdera, Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroaren finantzaketari eta edukierari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroaren finantzaketari eta edukierari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00114), Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeko azterlan espezifikoari

buruz (11-25-PEI-00122). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Horiei erantzunez, honako hau adierazi behar da:

1. Jurramendiko eta Izarbeibarko Mankomunitaterako lagun egiteko animalien zentroa ezartzeari buruzko azterlana, Lagun Egiteko Animalien Atalak egindakoa, ez da eremu horretan ezarri beharreko zentro espezifiko nolakoa izan behar den zehatz-mehatz aztertzen duen azterlan bat.

Zentro-eredu baten proposamena da, gutxi gorabeherako inbertsio- eta mantentze-kostuak jasotzen dituena, udalek nahitaez eman behar dituzten zerbitzuak eta instalazioek bete behar dituzten baldintzak aintzat hartuta, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera (7/2023 Legea, 19/2019 Foru Legea eta 94/2022 Foru Dekretua); izan ere, lurraldean ez dago baimendutako eta erregistratutako etxeko animaliak hartzeko zentrorik.

Jurramendiko Mankomunitateak eskatuta, Egapeludos elkarteak Lizarraldeko lagun egiteko animaliak hartzeko zentro bat ezartzeko eta mantentzeko aldez aurretik egindako azterlan bat berrikusi zen, eta horri buruzko oharrak egin ziren.

2. Zentroak behar duen edukiera zehazteko erantzukizuna udal elkartuen da. Udal horiek beren beharren azterketa egin behar dute, datu errealetan eta eguneratuetan oinarrituta. Azterketa horren arabera, zentroaren edukiera egokitu beharko da, eta, horrekin batera, baita inbertsio-eta mantentze-kostuak ere.

3. Azterlanak inbertsio-kostuen hurbilketa aurreikusten du, kontuan hartuta lagun egiteko animaliak hartzeko zentroek instalazioei, ekipamenduari, baldintza eta betekizun higieniko-sanitarioei eta biosegurtasunekoei dagokienez bete behar dituzten baldintzak, 94/2022 Foru Dekretuari jarraiki. Horretarako, bi mankomunitateak osatzen dituzten udalen antzeko biztanle-kopurua duten udalerrietan eraikitako lagun egiteko animaliak hartzeko zentroak eraikitzeak kostua hartu da kontuan, aintzat izan beharreko erreferentea baitira. Behin betiko kostuak mankomunitateek, premiak aztertu ondoren, agintzen duten proiektu teknikoaren arabera izanen dira.

4. Azterlanak zentroa mantentzeko gutxi gorabeherako kostuak jasotzen ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera udalek eman behar dituzten zerbitzuen arabera kalkulatu direnak. Aurreko kasuan bezala, kontuan hartu dira antzeko bizigu-neak dituzten beste zentro publiko batzuetako ani-

maliak hartzeko zentroen mantentze-gastuak. Beste gastu batzuk Animaliak Babesteko Nafarroako Gobernuaren Zentroko mantentze-datuen arabera sartu dira aurrekontuan (hornidurak, elikadura, etab.). Nolanahi ere, gastu horiek mankomunitateek egokitu beharko dituzte zentroari ematen zaion behin betiko edukieraren arabera.

5. Dena den, inplikaturako udalek eremuaren azterketa xehatu eta zehatzagoa egin behar dute, haiek baitituzte eskumenak beren udalerrietan abandonaturako, konfiskaturako, galdutako eta babesik gabeko etxeko animalien kudeaketari begira, bai eta katu kolonien kudeaketari dagokionez ere.

6. Lagun Egiteko Animalien Atalak egindako azterlanak ezarpen- eta kudeaketa-kostuen gutxi gorabeherako aurreikuspena ematen du, eta Nafarroako Gobernuak toki-erakundeei bere eskumenak betetzen laguntzeko neurri gisa egiten da, baina helburua ez da ezarpen proiektua gauzatzea eta estali beharreko beharrak eta finantzaketa modua zehaztea.

Azaldutako guztiagatik, ez da egokia idatzizko galdera bakoitzean planteaturako gaiei erantzutea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00115. Galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez datozen bat emandako datuen batura eta 2024rako agertzen diren soldatako langileen guztizkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer dela-eta ez datozen bat emandako datuen batura eta 2024rako agertzen diren soldatako langileen guztizkoa, 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (PES-00115), Nafarroako Gobernuari informazioa eskatzeko. Hona erantzuna:

2025eko urtarrilaren 14an, galdera idatzi bat aurkeztu nuen, hitzez hitz hau zioena: Nafarroan enpresek zenbat enplegu sortzen dituzte Orokorra, Enpresa txiki eta ertainak eta Mikroenpresak gisa bereizitako parametro bakoitzean? Eman zitzaidan taula honetan ikus daiteke:

		TG
General	>20M vol. Operaciones	28 %
Pymes	>1M <20 M vol. Operaciones	23 %
Micropymes	<1 M vol. Operaciones	19 %

Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuaren erantzuna ikusita (informazio hori ez zeukatela esan zidaten), erreklamazio bat aurkeztu nuen, eta erantzun bat bidali zidan Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak. Erantzun horretan, non Gobernuak informazio hori modu esplizituan ez daukala esan baitzidaten, baliagarriak izan daitezkeen taula batzuk bidali zizkidaten.

Taula horiek bidali izana eskertzen dut, baina zenbait zalantza eragin dizkidanez, azalpenak eskatzen ditut.

Igorritako bigarren taulan, soldatako langileen kopurua –2024ko soldatapeko langile guztien araberakoa– ez dator bat jasotzen den kopuru osoarekin.

Kopuru osoa 300.891koa da, baina batura erreala 213.993koa da.

Galderak:

– Zergatik ez datoz bat emandako datuen batura eta jasotzen den kopuru osoa?

– Zer kontzeptu jasotzen dira soldatapeko langileen kontzeptuan?

– Soldatapeko langile gisa sartzen al dira praktikaldiko kontratudunak?

– Soldatapeko langile gisa sartzen al dira LH Dualeko programetakoak edo beste formakuntza-programetakoak?

Lehenengo gaiari dagokionez, parlamentariari argibide bat bidali zitzaion martxoaren 5ean, eta indexatutako taula batean zegoen akats bat zuzendu zen (11-25/PES-00009).

Soldatapekoen kopurua lortzeko, Gizarte Segurantzaren inskribatutako kopurua hartzen da kontuan lehentasunez, edo, bestela, urtean egindako atxikipenen kopuruari buruzko informazioa, halakorik badago, zerga bidetik emandakoa. Nafarroako Enpresa eta Lokalen Katalogoaren (DNA) metodologian erabilitako iturriak adierazten dira:

https://nastat.navarra.es/c/document_library/get_file?uuid=f175c9ad-3e09-609c-1592-18e190607ac6&groupId=5122306

Soldatapekoak dira enpresaburu batendako (pertsona fisikoa edo juridikoa) soldata, ordainsari, komisio edo beste edozein ordainsariren truke eskudirutan edo gauzatan lan egiten duten pertsonak.

Gizarte Segurantzako afiliazioaren kasuan, autonomia erkidegoetako estatistika institutuei langileen datuak lagatzeko hitzarmenaren arabera,

langiletzat hartzen da ateratzeko unean erregimen hauetakoren batean alta egoeran dagoen Gizarte Segurantzako zenbakia duen pertsona fisikoa:

Clave	Descripción
100	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO – ORDINARIO
109	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL
130	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO - DISCAPACITADOS
139	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO – DISCAPACITADOS TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL.
150	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE INICIAL
189	INDEFINIDO TIEMPO COMPLETO – TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL.
200	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL – ORDINARIO
209	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL
230	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL - DISCAPACITADOS
239	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL – DISCAPACITADOS TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL.
250	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE INICIAL
289	INDEFINIDO TIEMPO PARCIAL – TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL.
300	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO
309	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL
330	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO - DISCAPACITADOS
339	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO – DISCAPACITADO. TRANSFORMACION

Clave	Descripción
350	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE INICIAL
389	INDEFINIDO FIJO/DISCONTINUO – TRANSFORMACIÓN CONTRATO TEMPORAL.
402	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – EVENTUAL POR CIRCUNSTANCIAS DE LA PRODUCCIÓN
403	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – INSERCIÓN
404	CONTRATO PREDOCTORAL
406	ADMINISTRACIONES PÚBLICAS. PLAN RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA, Y FONDOS UNIÓN EUROPEA. TIEMPO COMPLETO.
407	DURACIÓN DETERMINADA. ARTISTAS, TÉCNICOS Y AUXILIARES. TIEMPO COMPLETO.
408	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – CARÁCTER ADMINISTRATIVO
410	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – INTERINIDAD
411	DURACIÓN DETERMINADA. TIEMPO COMPLETO. PERSONAL DOCENTE INVESTIGADOR UNIVERSITARIO.
412	ACCESO PERSONAL INVESTIGADOR DOCTOR
413	DURACIÓN DETERMINADA. TIEMPO COMPLETO. DEPORTISTAS PROFESIONALES
418	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – INTERINIDAD CARÁCTER ADMINISTRATIVO
420	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – PRÁCTICAS
421	TEMPORAL TIEMPO COMPLETO. FORMACIÓN EN ALTERNANCIA
430	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – DISCAPACITADOS
441	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – RELEVO

Clave	Descripción
450	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE
452	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO COMPLETO – TRABAJADORES DESEMPLEADOS CONTRATADOS POR EMPRESAS DE INSERCIÓN
500	TEMPORAL. TIEMPO PARCIAL ORDINARIO
502	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – EVENTUAL POR CIRCUNSTANCIAS DE LA PRODUCCIÓN
503	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – INSERCIÓN
506	ADMINISTRACIONES PÚBLICAS. PLAN RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA, Y FONDOS UNIÓN EUROPEA. TIEMPO PARCIAL.
507	DURACIÓN DETERMINADA. ARTISTAS, TÉCNICOS Y AUXILIARES. TIEMPO PARCIAL.
508	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – CARÁCTER ADMINISTRATIVO
510	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – INTERINIDAD
511	DURACIÓN DETERMINADA. TIEMPO PARCIAL. PERSONAL DOCENTE INVESTIGADOR UNIVERSITARIO.
513	DURACIÓN DETERMINADA. TIEMPO PARCIAL. DEPORTISTAS PROFESIONALES
518	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – INTERINIDAD CARÁCTER ADMINISTRATIVO
520	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – PRÁCTICAS
521	TEMPORAL TIEMPO PARCIAL. FORMACIÓN EN ALTERNANCIA
530	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – DISCAPACITADOS
540	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – JUBILACIÓN PARCIAL
541	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – RELEVO

Clave	Descripción
550	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – FOMENTO CONTRATACIÓN INDEFINIDA/EMPLEO ESTABLE
552	DURACIÓN DETERMINADA TIEMPO PARCIAL – TRABAJADORES DESEMPLEADOS CONTRATADOS POR EMPRESAS DE INSERCIÓN

Soldatapekoak Gizarte Segurantzako inskripzioaren arabera kontuan hartzeko, aipatutako erregimenetako batekoak izan behar dute, eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kotizatu behar dute.

520 kontratu mota (iraupen mugatua denbora partzialean, praktikak) kontuan hartzen da praktiketako soldatapekoen kopurua zehazteko.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, ordaindu gabeko prestakuntza praktikak egiten dituzten ikas-

leak Gizarte Segurantzaren sisteman sartuta daude. Hala ere, ez dira sartzen Inklusio, Gizarte Segurantza eta Pentsio Ministerioak aldian-aldian ematen duen afiliatu kopuruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00116. Galdera, 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2021eko abenduan sinatu zen PIREPen funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Eraikin Publikoak Birgaitzea Bultzatzeko 2021eko abenduan sinatutako Programaren funtsen hitzarmenaren hamahirugarren klausula ez betetzeari buruz (11-25/PES-00116). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Komeni da bereiztea aipatutako klausulan ezarritako mugariak eta helburuak eta klausula berean adierazitako monitorizazio adierazleak. Azken horiek dagokio Cristina López Mañero andreak bere galderan aipatutakoa.

Eraikin Publikoak Birgaitzea Bultzatzeko Programaren funtsen hitzarmena sinatu duten alderdien artean orain arte zehaztu behar izan diren akordioak Aldebiko Jarraipen Batzordearen akte-tan jaso dira. Akta horiek eskatzaileari emanen zaizkio PEI-00370ri emandako erantzunean.

Hala ere, esan dezakegu orain arte ez dela akordiorik lortu behar izan hitzarmenaren monitorizazio-adierazleei dagokienez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00117. Galdera, BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak BSHren Ezkirozko plana ixtea ekiditeko bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Ezkirotzeko BSH lantegia ez ixteko bilerei

buruz (11-25/PES-00117). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eskaera egin duen parlamentariari hainbat aldiz jakinarazi diogunez, harremana etengabea da. Hurrengo bilera ostegun honetan izanen da, hilak 3, kontseilari honen agenda publikoan ikus daitekeen bezala.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00118. Galdera, Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Latasako eta Iruña-Sanduzelaiko uraren kalitatearen kontrol automatikorako sareko estazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00118 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Gobernuak uraren kalitatea automatikoki kontrolatzeko sarean (SAICA sare) kontrolatzen dituen honako estazio hauei buruz: Latasa (SAICA 03) eta Iruña-Sanduzelai (SAICA 07), Arga ibaian. Hona hemen

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Aldez aurreko informazio gisa, aipatu behar da 10 minuturo parametro bakoitzeko datu bat erregistratzen dela estazio bakoitzean, eta egunean 144 erregistro egoten direla. Informazio-fluxua diseinatuta dago landa-erregistroak sistema erredundante (hirukoitz) baten bidez biltegitratzeko, urruneko estazioan erregistroak galtzeko aukerak minimizatzeke.

SCADA sistema batek (kontrol sistema gainbegirale eta datuak eskuratzeko sistema) neurtzeko tresnak kontrolatzen ditu, eta seinale analogiko bidez komunikatzen da PLCekin (kontroladore logiko programagarriak), datalogger bidez.

PLCak FTP fitxategiak biltegitratzen ditu eta kanpoko bidalketa kudeatzen du, GPRS bidez, Nafarroako Gobernuako datuak eskuratzeko zentrorra. Nafarroako Gobernuaren zerbitzaritik GRAN aplikaziora iraultzen da informazioa. Aplikazio hori berariaz diseinatu zen Nafarroako Gobernuaren kontrol hidrologikoko sareetarako.

Informazioa modu irekian kontsulta daiteke webgune honetan:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren datuak eskuratzeko zentroak ere jasotzen du informazio-fluxu hori, eta bere datu-baseetan txertatzen da. Zenbakiz eta grafikoki erakusten da bere webgunean: <http://www.chebro.es/>.

Erregistratutako balioak ez dira nahitaez zuzenak izan behar. Horregatik, GAN-NIKeko teknikariak datuen erregistroa baliozkotzeaz arduratzen dira. Kontrol sistemek (automatikoki) eta sarea ustiatzeaz arduratzen diren langileek (kabinete lanaren bidez) erregistratutako datu-serieak aztertzen eta iragazten dituzte estazioan egindako mantentze prebentibo eta zuzentzaileetan lortutako informazioarekin eta kode kualitatibo bat esleitzen diote (flag), baliozkotzat edo balio gabetzat jotzen dituzten kontuan hartuta.


Flag kodea honelakoa izan daiteke:

- V eta R: baliozko erregistroetarako.
- V ez izatea (P, F, N, E, D, A): baliozkoak ez diren erregistroetarako.

Baliozko erregistroa da landa-lanean baliozkoa dela egiaztatu eta kabineteen aztertu ondoren zuzentzat jotzen dena eta Nafarroako Gobernuaren SAICA sarearen datu-basean V edo R flag kodearekin sartzen dena, estatistikoki kontabilizatzeko.

Kabineteen berrikusi ondoren doikuntzarik edo zuzenketa behar izan ez duten datuei esleitzen zaie V flaga, hau da, sentsoareak hautemandako datua baliozkotzat jotzen da.

R flaga aldizkako kalibrazioetan erregistratu diren sentsoaren desbideratzeak doitzeko erabiltzen da, sentsoaren oinarriko balioari zertxobait eragiten baitiote. R flaga duten datu horiek baliozkotzat jotzen dira, datu-seriearen hasierako edo amaierako puntua eredu-soluzioaren bidezko kalibrazioaren bidez lortu baita. Nolanahi ere, GRAN aplikazioaren datu-basean biltegitzen dira desbideratzeak eragindako jatorrizko balioa eta berreraikitako balioa, doikuntza prozesua egin zen eguna eta ordua aipatuta. Doikuntza mota hori eredu-soluzioekin (pH-a edo eroankortasuna) baliozkotzen/kalibratzen diren parametroei aplikatzen zaie normalean. Jarraian, Latasako SAICA estazioan eroankortasun parametrarako R flagaren erabileraren adibide bat bildu da.



Eredu-soluzioarekin kalibratu ondoren doitutako datuen adibidea eta Latasako Ultzama ibaian (SAICA-03) eroankortasun parametrarako R flaga erabiltzea. 2025eko otsailak 7-8.

Eredu-soluzioarekin kalibratu ondoren doitutako datuen adibidea eta Latasako Ultzama ibaian (SAICA-03) eroankortasun parametrarako R flaga erabiltzea. 2025eko otsailak 7-8.

Baliozkoak ez diren erregistroak ere (V edo R ez den flaga) biltegitzen dira, erabilgarria izan daitekeen informazioa izan dezaketelako. Hala ere, flag balio gabea duen erregistroa ez da esta-

tistikoki kontabilizatuko Nafarroako Gobernuaren SAICA Sarearen datu-basean.

Datuen tratamenduaren aplikazioak datuak berreraikitze aukera ematen duen tresna bat dauka, R flagarekin (berreraikia) kalifikatzen dituen. Landa-tresnek parametro baten aldakuntzak behar bezala neurtzen dituztenean (adibidez, pH-a edo eroankortasuna) baina oinarriko balioa zer-

txobait desbideratuta dagoenean eta pixka bat zuzendu behar denean erabiltzen da (adibidez, garbiketa edo kalibrazio baten ondoren). Datu horiek berreraiki eta aztertu ondoren, estatistikoki kontabilizatzen dira baliiodunekin batera (V+R).

Aurrekoa azalduta, egindako galderei erantzunen zaie:

1. Joan diren urtarrilean eta otsailean arazorik detektatu al da amonioaren irakurketa egiteko sentsoreei dagokienez (N-NH₄)?

Jarraian, kontsulta aldiaren amonioaren irakurketa egiteko sentsoreetan erregistratutako gorabeherak deskribatzen dira, eta 1. taula eta 2. taula estazio bakoitzean egindako mantentze bisitak zerrendatzen dira.

Ultzamako SAICA-03 (Latasa) estazioan, urtarrilean eta otsailean, prebentziozko mantentze-lanetarako 9 bisita, bisita zuzentzaile bat eta bi jarduketa telematikoki edo urruneko egin dira (1. taula). Prebentziozko bisitetan, estazioaren funtzionamendua egokia dela egiaztatu da, bai eta amonioaren analizatzailea behar bezala dabilela ere, eta errektiboak ordeztu dira, hileroko egin beharreko ohiko jarduketan barruan. Iragazte sistemak ere behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu da.

Egindako zuzenketa jarduketak ibaiaren goraldiekin lotuta daude, arazoak eragiten baitituzte estazioaren funtzionamenduan, hala nola ponpa automatikoki gelditzea, SAICA estazioa urez hornitzen duen ibaiko xurgatze-ponparen iragazkia zikintzen delako. Urtarrilaren 30ean, 13:10ean, estazioa urrunetik (telematikoki) gelditzea erabaki zen, ponpa automatikoki gelditzen ari zela detektatu zelako, arroan euria egiten ari zelako. Hurrengo egunean,

urtarrilaren 31n, 13:20an, estazioa urrunetik martxan jarri zen berriz, ibaiaren emaria jaitsi zelako. Hala ere, hasiera batean estazioa behar bezala funtzionatzen ari zela zirudien arren, 15:00etatik aurrera ponpa berriz hasi zen gelditzen, eta geldialdi automatiko ugari erregistratu ziren. Otsailaren 3an estazioa bisitatu eta ponparen iragazkia garbitu zen. Estazioa behar bezala funtzionatzen hasi zen.

Argako SAICA-07 estazioan (Iruña), urtarrilean eta otsailean, 8 prebentzio bisita eta bi bisita zuzentzaile egin dira (2. taula). Urtarrilaren 13ko prebentzio bisitan, amonioa analizatzeko ekipoa alerta bat hauteman zen; hain zuzen, errektiboaren mailak baxuak zirela jakinarazi zen. Beharrezko estandarrak eskatu zitzaizkion zerbitzu teknikoari. Errektibo berriak urtarrilaren 30eko prebentziozko mantentze-lanetan instalatu ziren. Jarraian, amonioaren analizatzailearen xurgatze sistema zebatu zen, eta ekipoa autokalibrazioa egin zuen. Ekipoa behar bezala neurtzen zuen.

Hurrengo prebentzio bisitetan, ohiko garbiketa soluzioa aldatu zen (otsailaren 6an), eta izotz-contrako mahuka babesle bat instalatu zen (otsailaren 17an). Otsailaren 11n, bisita zuzentzailea egin zen, neurtzeko zunda optikoa buxatuta zegoelako eta uhertasun-balio altuak hauteman zirelako. Jarduketa horiek guztiek ez zuten inolako interferentziarik sortu amonioaren analizatzailearen neurketan. Otsailaren 24an, ordea, komunikazio arazo bat antzeman zen, eta, akats horren ondorioz, analizatzailea gelditu egin zen. Otsailaren 27an, zerbitzu teknikoak estazioa bisitatu zuen, ekipoen komunikazio arazoak konpontzeko, eta amonioaren analizatzailea behar bezala funtzionatzen hasi zen.

Data	Mantentze mota	Estazioaren funtzionamendu orokorrari eta amonioaren SC analizatzailearen funtzionamenduari dagokienez hautemandako gorabeherak
2025/01/03	P	
2025/01/07	P	Amonioaren analizatzailearen garbiketa soluzioa aldatzen da.
2025/01/14	P	
2025/01/21	P	
2025/01/28	P	
2025/01/30	CR	Estazioa urrunetik (telematikoki) gelditzen da 13:10ean, estazioan ponparen geldialdi automatikoak detektatzen baitira. Ibaiaren goraldiaren aurrean hartutako babes neurria. Olabe ibaiaren emaria CHE Q estazioan: 110 m ³ /s.
2025/01/31	CR	13:20an, estazioa berriz jarri zen martxan telematikoki, ibaiaren emaria jaitsi zela eta estazioaren funtzionamendurako arriskurik ez zekarrela ikusi ondoren.
2025/02/03	C	Ponpa eta ponpa babesteko saskia garbitzen dira.
2025/02/04	P	Amonioaren analizatzailearen 1. eta 2. Kalibrazio patroiak aldatzen dira.
2025/02/11	P	Amonioaren analizatzailearen garbiketa soluzioa aldatzen da.
2025/02/18	P	
2025/02/27	P	

Mantentze prebentiboa (P) eta zuzentzailea (C) egiteko bisita. Urruneko bisita zuzentzailea (CR).

1. taula. Ultzamako Latasa estazioan (SAICA-03) egindako mantentze bisitak. Urtarrila-otsaila 2025

Data	Mantentze mota	Estazioaren funtzionamendu orokorrari eta amonioaren SC analizatzailearen funtzionamenduari dagokienez hautemandako gorabeherak
2025/01/08	P	Amonioaren analizatzailearen garbiketa soluzioa aldatzen da.
2025/01/13	P	Alerta amonioaren analizatzailean, errektiboaren maila baxuak detektatzeagatik.
2025/01/20	P	Amonioaren analizatzailearen 1 eta 2 errektiboek maila baxuak dituzte.
2025/01/30	P	Agortuta zeuden estandarrik ordeztzen dira. Ekipoa garbitu eta kalibratzen da.
2025/02/06	P	Amonioaren analizatzailearen garbiketa soluzioa aldatzen da.
2025/02/10	P	
2025/02/11	C	Uhertasunaren balioak anormalki altuak dira sentore optikoa buxatuta egoteagatik. Horrek ez dio amonioaren neurketari eragiten.
2025/02/17	P	Analizatzailearen laginak hartzeko hodia inguratzen duen amonioaren analizatzailearen berokuntzako mahuka solte dagoela detektatzen da. Mantentze-lanetan, instalazioa hobetzen da, mahuka behar bezala jarrit. Intzidentziak ez die eragiten amonioaren analizatzailearen neurketari.
2025/02/24	P	Komunikazio akatsa antzematen da amonioaren analizatzailearen eta datu-kontrolagailu eta -prozesadorearen artean. Amonioaren analizatzailea gelditu egiten da.
2025/02/27	C	SAT bisita amonioaren analizatzailearen eta kontrolagailuaren arteko komunikazio arazoak konpontzeko eta datuak eskuratzeko.

2. taula. Iruñeko Argako estazioan (SAICA-07) egindako mantentze bisitak. Urtarrila-otsaila 2025.

2. Sentore horiek arrazoren batengatik deskonektatu al dira? Zein?

Ultzamako SAICA-03 estazioan (Latasa) eta Argako SAICA-07 estazioan (Iruña) instalatutako amonioaren analizatzaileak ez dira deskonektatu, nahiz eta erregistratutako datu batzuk automatikoki baliogabetu dituen kontrol sistema automatiko-

ak edo eskuz baliogabetu dituzten GAN-NIKeko teknikariek datuak baliozkotzeko lanetan. 2025eko urtarrilean eta otsailean, deskribatutako estazio bakoitzean baliogabetutako amonioaren datuak % 6,4 izan dira Latasako SAICAn eta % 9 Iruñeko SAICAn; hau da, Latasako SAICAn denbora errealeko datuen % 93,6 eta Iruñeko datuen % 91 baliozkotu dira.

Jarraian, amonioa erregistratzean estazio bakoitzari dagokionez baliogabetutako datuak deskribatzen dira, bai automatikoki baliogabetutakoak, bai datuak baliozkotzean baliogabetutakoak.

Data	Flaga	Oharrak. Baliogabetutako datuak.
2025/01/30 13:10 h - 2025/01/31 13:20 h -	P	Ponpa modu iraunkorrean gelditzea. Estazioa automatikoki gelditzen da ibaiaren goraldiaren aurrean eta ponpa babesteko neurri gisa.
01/31 15:20 h – 02/03 08:10 h	P	Ponpa aldizka gelditzea. Iraupen laburreko geldialdi automatiko ugari erregistratzen dira ponparen iragazkia zikina dagoelako.
01/30 02/07, 02/08, 02/22	D	Uhertasunak erregistroa kaltetzea. Amonioaren datuen erregistroa > 200 NTU uhertasunagatik baliogabetzea. Datuen iraupen desberdineko tartea adierazitako egunetan.
01/3, 7, 14, 21, 28 02/3, 4, 11, 18, 27	M	1-2 ordu arteko mantentze-lanak.
Egunero, 4:40ean gutxi gorabehera (1 eta 3 erregistro artean)	L	Garbiketa. Amonioaren analizatzailearen autogarbiketa- eta kalibrazio-prozesuaren ondorioz erregistroari eragitea. Egunero, 4:40-5:00etan gutxi gorabehera.

3. taula. Automatikoki eta eskuz baliogabetutako datuen erregistroak Ultzamako SAICA-03 (Latasako estazioan (urtarrila-otsaila 2025)).

Latasako SAICA-03 estazioan erregistratutako datuei dagokienez, urtarrilaren 30eko 13:10etik urtarrilaren 31ko 13:20ra bitarteko datuak automatikoki baliogabetu zituen kontrol sistemak, estazio-ko ponpa geldirik egon baitzen. Ponparen geldialdi iraunkorra urrutitik egin zen, etenaldi automatiko puntualak erregistratu ondoren. Iragazkia zikina egoteagatik gertatu zen, prezipitazioen ondorioz uhertasuna handitzeagatik. Ponpa iraunkorki gelditu zen ponpa babesteko neurri gisa. Urtarrilaren 31n jarri zen martxan, ibaiko emaria jaitsi ondoren. Eragindako datuak P flagarekin (ponpa geldituta) baliogabetu ziren automatikoki, eta baliozko datuen ehunekoetik kanpo gelditu ziren. Behin martxan jarri ondoren eta otsailaren 3ko mantentze bisitan iragazkia garbitu arte, ponpa hainbat aldiz gelditu zen berriz ere iragazkia zikin egoteagatik; beraz, geldialdietan erregistratutako datuak automatikoki baliogabetu ziren P flagaren bidez.


Amonioaren analizatzaileak urtarrilaren 30ean, otsailaren 7an eta 8an eta otsailaren 22an erregistratutako datu batzuk automatikoki baztertu ziren, adierazgarritasunik ez izateagatik. Izan ere, 200 NTU baino gehiagoko uhertasun-balioak erre-

gistratu ziren, eta, hain zuzen ere, datu horretatik aurrera, fabrikatzaileak amonioaren analizatzailearen datu baliodunen neurketa mugatzea gomendatzen du, neurketan interferentziak egon daitezkeelako. Eragindako datuak automatikoki baliogabetu ziren D flagarekin (uhertasunak eraginda).

Asteko mantentze prebentiboko bisitak egin ziren denbora-tartean automatikoki erregistratutako datuei dagokienez, baita bisita zuzentzaileak egin ziren denbora-tarteari dagokionez ere, eragindako datuak M flagarekin (mantentzeak eraginda) baliogabetu ziren.

Gainera, datuak baliozkotzean, eskuz baliogabetu ziren amonioaren analizatzaileak egunero goizeko lehen orduetan egiten duen garbiketa- eta kalibrazio-prozesuan erregistratutako datuak (4:40ean, Latasako analizatzailearen kasuan). Eragindako datuak L flagarekin (garbiketak eraginda) baliogabetu ziren.

Azkenik, urtarrilean eta otsailean Latasa estazioan (SAICA-03) baliogabetutako amonioaren datuak erregistratutako datuen % 6,4 baino gutxiago dira.



Latasako Ultzama ibaian (SAICA-03) erregistratutako amonioaren datu baliodunen bilakaera. Urtarrila-otsaila 2025.

	N-NH ₄ (mg/l)
Batez bestekoa	0,06
Gehienekoa	2,31
Gutxienekoa	0,01
Datuen %	93,609

4. taula. Latasako Ultzama ibaian (SAICA-03) baliozkoak diren N-NH₄ datuak. Urtarrila-otsaila 2025.


Iruñeko SAICA-07 estazioan erregistratutako datuei dagokienez, hainbat alditako datuak eskuz baliogabetu ziren amonioaren analizatzailean funtzionamendu-arazoak erregistratu zirelako; hain zuzen, urtarrilaren 29tik 30era eta otsailaren 24tik 27ra bitarteko datuak. Eragindako datuei N flaga esleitu zaie (datu baliogabea).

Era berean, Latasako estazioaren kasuan bezala, Iruñeko estazioan mantentze bisitak egin ziren denbora-tartean erregistratutako datuak automatikoki baztertu ziren (M flaga), baita uhertasunak 200 NTU balioa gainditu zuen denbora-tartean erregistratutakoak ere (D flaga).

Data	Flaga	Oharrak. Baliogabetutako datuak.
01/30-31 02/08	D	Uhertasunak erregistroa kaltetzea. Amonioaren datuen erregistroa > 200 NTU uhertasunagatik baliogabetzea. Datuen iraupen desberdineko tartea adierazitako egunetan.
01/08, 13, 20, 30 02/06, 10, 17, 24, 25, 27	M	1-2 ordu arteko mantentze-lanak.
01/29 6:00 h - 01/30 11:20 h	N	Erregistro baliogabea. Amonioaren analizatzailearen erregistroa baliogabea da, erreaktiborik gabe geratu delako (balio negatiboko seinalea). SATren horniduraren zain dago.
02/24 12:50 h- 02/27 9:30 h	N	Erregistro baliogabea. Amtax SC ekipoen eta SC1000 datu-prozesadorearen arteko komunikazio akatsa. Amonioaren analizatzailea gelditu egiten da.

5. taula. Automatikoki eta eskuz baliogabetutako datuen erregistroak Argako SAICA-07 (Iruña) estazioan (urtarrila-otsaila 2025).

Azkenik, urtarrilean eta otsailean Iruñeko estazioan (SAICA-07) baliogabetutako amonioaren datuak erregistratutako datuen % 9 dira.



Iruñeko Arga ibaian (SAICA-07) erregistratutako amonioaren datu balioidunen bilakaera. Urtarrila-otsaila 2025.

	N-NH ₄ (mg/l)
Batez bestekoa	0,02
Gehienekoa	0,14
Gutxienekoa	0,02
Datuen %	90,996

6. taula. Iruñeko Arga ibaian (SAICA-07) baliozkoak diren N-NH₄ datuak. Urtarrila-otsaila 2025.

3. Gobernuaren ustez, egiazkoak al dira urtarilaren 23az geroztik denbora errealean argitaratzen ari diren datuak?

Denbora errealean argitaratutako datuak estazio horietako sentsoreek modu autonomoan erregistratzen dituzten neurketak dira. Datu horiek, kontsulta publikoko webgunean bertan adierazten den bezala, "behin-behinekoak dira eta berrikusi egin behar dira".

(<https://administracionelectronica.navarra.es/aguaEnNavarra/ctaMapa.aspx?IDOrigenDatos=2&IDMapa=1>).

Berrikuspen hori ur-kalitatean aditua den teknikari batek datuak baliozkotzean/baliogabetzean datza. Berrikuspen prozesu horren ondoren, baliozkotutako datuak Nafarroako Gobernuaren Ur Sare Automatikoaren Kudeatzailea (GRAN) izeneko datu-basean biltegitratzen dira; hala ere, gaur egun, muga teknikoak direla-eta, ezin dira

automatikoki argitaratu. Dena den, arestian azaldutako arrazoiengatik datuak baliogabetzen badira ere, datu horiek datu-basean gordetzen dira, berrikuspena noiz egin zen jasotzen duen erregistro batekin batera, eta Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoaren Zerbitzuari ingurumen informazio eskaera bat eginez eskura daitezke.

Gaineratu behar da datozen hilabeteetan Nafarroako Gobernuaren ur-sareen komunikazio sistemaren teknologia berritzea aurreikusten dela, eta kontrol estazioen saretik lortutako datuak denbora errealean eta, ondoren, egiaztatutako datuak eskaintzeko aukera aztertuko dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00119. Galdera, nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak nitratoek urak kutsatzearen diagnostikoan herritarrek parte hartzea sustatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00119 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, nitratoek uretan eragindako kutsaduraren diagnostikoan herritarrek parte har dezaten sustatzeari dagokionez. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Urak nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek eragindako kutsadura lausotik babesteari buruzko urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretuak eskumen banaketa bat ezartzen du autonomia erkidegoen eta Estatuaren artean. Taula honetan laburbildu dugu banaketa hori:

Actuaciones	Cuenca intercomunitaria		Cuenca intracomunitaria	
	CCAA	Estado	CCAA	Estado
Determinación de aguas afectadas		X	X	
Designación de zonas vulnerables	X		X	
Códigos de buenas prácticas agrarias	X		X	
Programas de actuación	X		X	
Muestreo y seguimiento de las aguas	X	X	X	
Informe de situación		X		X

Tabla 1. Reparto de competencias en la implementación de la Directiva 91/676

Era berean, taula hori Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako uren arloko eskumenen banaketaren ondorio da. Ildo horretan, erkidego arteko arro hidrografikoak (bi autonomia erkidego edo gehiago hartzen dituztenak) eta erkidego barrukoak (lurralde eremua autonomia erkidego bakarrean dutenak) daude. Arro hidrografiko bat lurrazaleko jariatze osoa korrante, ibai eta aintziretatik itsasorantz doan lurrazal-azalera denez, bokale, estuario edo delta bakar batetik, eta Nafarroak kostarik ez duenez eta, beraz, bokalerik ez duenez, Nafarroan ez dago erkidego barruko arrorik.

Espanian 25 demarkazio hidrografiko daude: <https://www.miteco.gob.es/es/cartografia-y-sig/ide/descargas/agua/ddhh-oocc.html>

Galderan aipatutako 47/2022 Errege Dekretuaren 9. artikulua zera dio:

“1. Hala badagokio, izendatutako eremu kalteberen zerrenda aldatzeko, bai eta sortutako jarduketaren programen eraginkortasuna egiaztatzeko ere, erkidego arteko arroetarako arroen erakundeek eta autonomia erkidegoetako organo eskudunek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, laginketa programak eta uren kalitatearen jarraipena egiteko programak diseinatuko dituzte, lurrazaleko uren, lurpeko uren eta eremu babestuen egoeraren jarraipena egiteko dagozkien plan hidrologikotan ezarritakoak, irailaren 11ko 817/2015 Errege Dekretuarekin koordinatuta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan xedatutakoari erantzunez [...]”.

Esan bezala, Nafarroan ez dago erkidego barruko arrorik, eta, beraz, ez dagokio Nafarroako Gobernuari uren kalitatearen laginketa eta jarraipen programa horiek diseinatzea.

Hala, artikuluko bereko 2.e) puntuan honako hau aipatzen denean:

“e) Adierazitako laginketa horien osagarri, arrokoko organismoek eta autonomia erkidegoek bultzatuko dute herritarrek arazo horren diagnostikokan parte hartzea. Horretarako, agintariak diagnostikorako sistema bakunak ematen ahalko dizkiete interesdunei, inpaktupeko eremuak edo puntuak detektatzea ahalbidetuko dutenak, beren ikerketa espezifikoak horietara zuzendu ditzaten”.

1. puntuan bezala, “erkidego arteko arroetarako arroen erakundeei eta erkidego barruko arroetarako autonomia erkidegoetako organo eskudunei” egiten dio erreferentzia, haiei baitagokie uren kalitatearen laginketa eta jarraipen programak diseinatzea. Eta, azaldu denez, eginkizun hori ez dagokio Nafarroako Gobernuari.

Hala ere, nabarmendu behar da, Foru Komunitatearentzat arau eskakizunik ez dagoen arren, 70eko hamarkadaz geroztik Nafarroan estazio sare propioa dugula, funts propioekin finantzatua, kontrol zorrotza lortzeko hainbat parametro neurtzeko. Hori horrela izan da Ebroko Konfederazio Hidrografikoak kontrolak egin aurretik ere.

Lankidetzaren etengabea dugu Foru Komunitatearen eskumena duten arroen erakundeekin: Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa (KKH) Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (KH) Ebroko demarkazio hidrografikoa. Izan ere, departamentu honek, Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA (NIK) sozietate publikoaren lankidetzarekin, nitratoen jarraipena egiteko sare bat kudeatzen du. Sare horren helburua da nitratoz kutsatzeko arriskuan dauden eremu izendatutako eremuen eta arriskuan dauden beste eremu batzuen jarraipena egitea. Sare hori Ebroko alubialeko eta haren ibaiadarretako 50 laginketa puntuk osatzen dute, eta horietan ia hileko egiten dira egoera kimikoaren aldagai adierazgarrien kontrolak (fisikokimika orokorra). Sare horren helburuetako bat nitratoen zuzentaraua betetzea da, zeina Uraren Esparru Zuzentarauan eta Lurpeko Uren Zuzentarauan jasota geratu baita. Bestalde, uren kalitatearen joerei buruzko informazio fidagarria eman nahi du.

50 estazio horietan ur laginak jasotzen dira, eta laborategian aztertzen dira uren kalitate parametroak lortzeko (oinarrizko parametroak, kutsa-

tzaileak, materia organikoa eta uren matrize ionikoa), eta parametroak in situ neurtzen dira. Análisiak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (ISPLN) egiten ditu. Datuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren sarean txertatzen dira, eta urtero bidaltzen dira. Urteko memoria bat egiten da, hemen eskuragarri: https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/Aguas-Subterraneeas.htm.

Lurpeko uren 50 kontrol puntu espezifiko horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoko lurpeko uren nitratoen kontrol sarearen 42 puntuei gehitzen zaizkie; hala, Nafarroa da lurpeko uretan nitratoen kontrol puntuen dentsitate handiena duen eskualdeetako bat Estatu osoan.

Lurrazaleko urei dagokienez, sail honek 124 estazio kudeatzen ditu; horietatik 74 estaziotan urtean zortzi kontrol egiten dira, eta 50 estaziotan urtean lau. Hala ere, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ez ditu datu horiek erabiltzen, eta laginketa propioak erabiltzen ditu.

Aurrekoa esanda, egindako galderei erantzunen zaie:

1. Nola bultzatuko duzu herritarrek uren kalitatearen diagnostikokan parte hartzea, 47/2022 Errege Dekretuak ezartzen duen bezala?

Arestian azaldutakoaren arabera, Nafarroan erkidego barruko arrorik ez dagoenez, ez dagokio departamentu honi, ez Nafarroako Gobernuari, uren kalitatearen diagnostikokan herritarrek parte har dezatela bultzatzea.

2. Ekologistak eta bizilagunak egiten ari diren laginketak deskalifikatu beharrean, Departamentuak kolektibo eta interesdun horiei ez al dizkie eman diagnostikorako sistema bakunak, nitratozko kutsaduraren inpaktupeko eremuak edo puntuak detektatzea ahalbidetuko dutenak, beren ikerketa espezifikoak horietara zuzendu ditzaten?

Erantzuna 1. galderaren antzekoa da. Hala ere, ekologistek eta bizilagunek eskaera bat eginez gero, departamentu hau dagokion arrokoko erakundeari bideratzen saia liteke.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00120. Galdera, energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obretan zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00120 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruz energia elektrikoa ekoizteko eta banatzeko instalazioetako obrei dagokienez. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko azpiegiturek, baso lurretan daudenean, lurreko azpiegiturei edo euskarriei dagokienez, mendiak aldi baterako okupatzen dituzte; kasu batzuetan, onura publikoko mendiak eta bide-zortasunak okupatzen dituzte aireko linearen gaineko proiektioari eta arlo elektriko araudi espezifikoan araututako lur-zerrenda mugakide batzuei dagokienez, eta aldatu egiten dira, linea elektrikoaren potentziaren arabera.

Hori dela eta, lege ondorioetarako, ez da baso azaleraren galeratzat hartzen, ez euskarrien okupazioari, ez zortasuna ezartzei dagokienez; izan ere, linea elektrikoan azpian ez da onartzen horren funtzionamendu normala alda dezakeen zuhaitzik egotea, baina landaredi espontaneo hazten da, zeina aldizka soilten baita. Gainera, lursail horiek abeltzaintzarako erabiltzea baimentzen da.

Ondorioz, eta egindako galderei erantzunez:

1. Zenbat basoberritze proiektu aurkeztu zaizkio Gobernuari 2010. urteaz geroztik, argindarra ekoizteko edo banatzeko instalazioak egiteko aur-

keztuak izan eta baso azaleraren murrizketa zekarten dozenaka proiektuetan?

Baso legeriaren babesean, ez da aurkeztu ildo horiei lotutako basoberritze proiekturik, lege ez baita beharrezkotzat jotzen. Hala ere, azpiegitura horien ingurumen ebaluazioaren izapidearen esparruan, kasu batzuetan, proiektuari lotutako basotzeak edo basoberritzeak egiten dira. Ez dago informaziorik ingurumen inpaktuaren prozedurarekin lotutako basoberritze posibleei buruz.

2. Zeintzuk ziren proiektu horiek? Ala, baime-nak ematean, ez al da kontuan hartu zuhaitz mozketaren auzi hori?

Aurreko apartatuan aipatu den bezala, baso lurraren galera kontuan hartzen ez denez, ez dago azpiegitura horien eraikuntzarekin lotuta egoten ahal diren basoberritze proiektuei buruzko informaziorik. Nolanahi ere, basoberritze proiektu horiek lotuta egonen lirarteke instalazio horren inguruabar zehatzak aztertu ondoren haien ingurumen ebaluazioaren izapidetik eratorritako neurriekin.

3. Gobernuak kalkulatuta ala inbentariatuta al du zenbat zuhaitz moztu diren Nafarroan 2010az geroztik, argindarra ekoizteko edo banatzeko instalazioetarako obrak gauzatzearen ondorioz? Zenbat izan dira, eta nola banatzen da mozketak?

Azpiegitura horiek egiteko moztu behar diren zuhaitzak ez dira bereizita zenbatzen, eta, beraz, ez dago informazio xehaturik.

4. Gobernuak ba al du basoberritze proiektuak exijitzeko asmorik argindarra ekoiztu edo banatzeko instalazioetarako obrak gauzatze aldera aurkeztu diren proiektu berrietan, horiek zuhaitz masei eragiten dietenean?

Oro har, ez da legezko betebeharrak, arestian deskribatutakoa aintzat hartuta; hala ere, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren izapidearen esparruan kasu zehatz bakoitza aztertuko litzateke.

5. Zehazki, Gobernuak ba al daki zer eragin izan dituen zuhaitz masa desberdinetan Larraga udalerriko San Marcos II proiektu eolikoaren gauzatzeak?

Gobernuak ba al daki zenbat zuhaitz ebaki diren proiektu horretan? Hartu al du neurriren bat ebakitako zuhaitzak bezainbeste ale birlandatzeko?

Bai, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuan jasota daude parke horren eraikuntzaren ondorioz moztutako zuhaitzen espedienteen izapideak. Zehazki:

1. 2022/08/05ean, eskabide orokor bidez, Nafarroako Gobernuko Erregistroan eskatu zen “San Marcos II-Parque Eólico de Navarra SLU parke eolikoaren proiekturako mozketaren baimena” (erregistro-zenbakia: 2022/960816). Eskabide horri “separata” bat erantsi zitzaion, jarduketak deskribatzeko eta jarduketek baso-masan zuten eragina aztertzeko.

Dagokion eskaera aztertuta, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuko zuzendariaren irailaren 8ko 407E/2022 Ebazpenaren bidez lan horiek baimendu ziren, Basoak Kudeatzeko Atalaren txostenean oinarrituta, honako hau adieraziz:

– Eskatutako jarduketaren bidez, zuhaitzak moztuko dira Larraga udalerrian dagoen San Marcos II parke eolikoaren eraikitzeko obraren barnean. Parke horrek IIA du, eta ekainaren 14ko 400E/2018 EBAZPENAREN bidez onartu zen (espediente kodea: 0001-0035-2016-000002).

– Bi haize-sorgailuak (SM2-07 eta SM2-12) instalatzeko egin beharreko plataformak ukitutako azalerak 2,7 ha Aleppo pinu (*Pinus halepensis*) inguru kentzea dakar. Plataforma horretara sartzeko eremuak, bidearen alboetan, gutxi gorabehera 0,76 ha-ko azalerari eraginen dio, batez ere arteek (*Quercus ilex*) eta abaritzek (*Quercus coccifera*) osatutako landarediari.

Moztu beharreko ale kopuruen zenbatespenak honako hauek dira:

Aleppo pinua (*Pinus halepensis*): 2.230

Abaritzak (*Quercus coccifera*): 789

Arteak (*Quercus ilex*): 50

2. 2022/08/31n, eskabide orokor bidez, Nafarroako Gobernuko Erregistroan eskatu zen “Linte-Parque Eólico de Navarra SLU parke eolikoaren proiekturako mozketaren baimena” (erregistro-zenbakia: 2022/1056385).

Larraga udalerrian (Nafarroa) eraikiko den Linte parke eolikoak zazpi haize-sorgailu izanen ditu. Proiektu horrek IIA dauka, ekainaren 14ko 400E/2018 EBAZPENAREN bidez (espediente kodea: 0001-0035-2016-000002). Haize-sorgailu horiek eraikiko diren tokian baso-masa dago, eta beraz proiektua gauzatzeko moztu behar dira.

Dentsitate eremuak kontuan hartuta, moztu beharreko espezie bakoitzaren oin kopurua kalkulatu da. Honako hauek dira:

– Aleppo pinua (*Pinus halepensis*): 68 oin

Sarbidearen gainerako zatiak ez dio zuzenean eragiten baso-masari.

Oin horiek mozteko baimena eskatu da, eta txosten zehatzagoa erantsi da.

“Ukitutako baso-masaren azterketa” separata erantsi da.

Dagokion eskaera aztertuta, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuko zuzendariaren irailaren 26ko 436E/2022 Ebazpenaren bidez lan horiek baimendu ziren, Basoak Kudeatzeko Atalaren txostenean oinarrituta, honako hau adieraziz:

– Larraga udalerrian Linte 1 haize-sorgailua instalatzeko obrek Aleppo pinuek (*Pinus halepensis*) estalitako muino bati eragiten diote.

– Obra horiek egiteko, beharrezkoa da muinoaren kota murriztea, lurzorua nibelatzea eta haize-sorgailuaren plataformaren okupazioagatik aurreikusita ez zeuden pinu batzuk mozteak.

– Ukitutako azalera 608 m² ingurukoa da, eta pinuez gain, abaritz (*Quercus coccifera*) sakabatu batzuk kenduko dira.

– Gainerako haize-sorgailuek ez diote zuzenean eragiten baso-masari. Laborantza lurrak eta lezkadiak dituzten ubideak dira, 1. Linte eta 2. Lintean eta 3. Linte eta 4. Lintean eremuen artean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00121. Galdera, nitratoen aitzinean zaurgarriak diren eremuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak nitratoen aitzinean zaurgarriak diren eremuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00121 idatzizko galdera egin du, nitratoen kutsaduraren ondorioz kalteberak diren eremuei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak oraindik ez du egin nekazaritza-iturrietatik sortutako nitratozko ur-kutsadurarekiko kalteberak diren eremuen eguneratze edo berrazterketa. Zergatik da hori horrela, kontuan hartuta aurrekoaren indarraldia 2018tik 2020ra bitartekoa zela?

Ura nekazaritza-erortarritako nitratoek sortutako kutsaduratik babesteari buruzko otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuak 3. artikuluan ezartzen du Nekazaritza, Arrantza eta Ingurumen Ministerioak eskumena duela nekazaritza-erortarritako nitratoek sortutako kutsadurak zein ur-masari eragiten dien edo eragin diezaiekeen zehazteko. 4. artikulua ezartzen du autonomia erkidegoek eremu kaltebera izendatuko dituztela jariatzeak edo iragazketek eragindako lurralde eremuak, baldin eta nitratoen kutsadurak eragindako edo nitratoez kutsatzeko arriskuan dauden urei eragiten badiete edo eragin badiezaiekete.

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak 2016an nekazaritza jatorriko

nitratoek eragindako edo eragiteko arriskuan dauden eremuak sortzen dituzten ur-masak zehaztu zituen, eta erabaki horren berri eman zion Europako Batzordeari.

Zehaztapenean oinarrituta eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bidalitako dokumentazio kartografikoa kontuan hartuta, 2018an eremu kalteberak izendatu ziren 2018-2021 laurtekorako. Horrela, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez berrikusi egin ziren nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onetsi zen. 052 Ebroko alubiala: Tutereta-Alagón lurpeko ur-masarekin lotutako eremu kalteberaren azalera handitu zen, 049 Ebroko alubialaren (Lodosa-Tutereta) lurpeko ur-masaren eraginpeko eremua ere barne hartzeko. Bestalde, 090.051 Cidacos ibaiaren alubialaren lurpeko ur-masarekin lotutako eremu kaltebera Cidacos ibaiaren arroarekin batu zen, ukituztat jo baitziren 292 "Cidacos ibaia, sorburutik Zenborain ibairaino" gainazaleko ur-masa eta 094 "Cidacos ibaia, Zenborainetik bokaleraino" gainazaleko ur-masa. Azkenik, eremu kaltebera gisa mantendu zen 95 "Robo ibaia, sorburutik Arga ibaian isurtzen den arte" lurrazaleko ur-masaren isuri arroa.

Hala ere, 2018ko azaroaren 9an, Europako Batzordeak 2018/2250 arau-haustearen prozedurarekin loturiko dei-gutun bat igorri zion Espainiari. Gutun horren arabera, Kontseiluaren 1991ko abenduaren 12ko 91/676/EEE Zuzentarauaren 3.4, 5.4, 5.5 eta 5.6 artikuluen arabera dagozkion betebeharrak ez zituen bete. Egoera horren ondorioz, eremu kalteberen egungo izendapena berrikusi zen, Zuzentarauaren aipatu artikulua betetzen zirela kontuan hartuta, eta Jarduketa Programa indartuago bat onartu zen Cidacos ibaiaren arro hidrografikoari dagokion 3. eremu kalteberaren azaleko uretan nitratoen kontzentrazioaren joera leheneratzeko. Horrela, oro har, % 20 murriztu ziren aplikatu beharreko gehieneko nitrogeno dosiak, lurzoruko nitrogenoaren analisi batek mantenugai horren balio txikiak adieraziz gero izan ezik. Halaber, maldan dauden

lurzatieta ongarriak aplikatzeko baldintzak aldatu behar izan ziren eta maldaren gradientea birdefinitu, Europako Batzordearen jarduketa programak egiteko gomendioen arabera, edo herrialde kide bakoitzaren azterketa zientifikoen arabera, halakorik balego.

261/1996 Errege Dekretuaren 4. artikulua arabera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren irailaren 15eko 147E/2020 Foru Aginduaren bidez, izendapen berri bat proposatu zen, aurreko izendapenean aurreikusi ez ziren aldaketak edo faktoreak kontuan hartzeko. Izendapen berri horren bidez, lurpeko ur-masekin lotutako eremu kalteberen azalera handitu zen. Era berean, jarduketa programak eguneratzea proposatu zen, eta foru agindu horretan txertatutako eremu aitortuetan aplikatzea.

147E/2020 Foru Agindua onesteari esker, Nafarroako Foru Komunitatea arau-hauste prozedura horretatik kanpo gelditu zen.

Indarrean dagoen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren irailaren 15eko 147E/2020 Foru Aginduaren bidez, berrikusi egin ziren nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak eta aldatu ziren 2018-2021 aldirako jarduketa programak. Otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren arabera onartu zen (261/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Ura nekazaritzatik eratorritako nitratoek sortutako kutsaduratik babesteari buruzkoa). 261/1996 Errege Dekretuak, 4.2 artikuluan, zera ezartzen zuen: "autonomia erkidegoetako organo eskudunek aztertu eta, hala badagokio, aldatu edo zabaldu egin beharko dituzte kaltebera izendatutako eremuak, dagokion denboran eta gutxienez lau urtean behin, izendatzeko unean aurreikusi ez ziren aldaketak edo faktoreak kontuan hartzeko".

2022ko urtarrilaren 20an, eta, beraz, urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez onartutako lau urteko epea igaro baino lehen, Estatuko Aldizkari Ofizialean urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretua argitaratu zen. 47/2022 Errege Dekretu horrek ezartzen duenez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITERD), konfederazio hidrografikoek emandako informazioaren arabera, nitratoek sortutako kutsadura lausoak eragindako uren mapak argitaratu

behar ditu. Argitaratu ondoren, autonomia erkidegoek gehienez ere hiru urteko epea dute beren lurraldeko azalerak eremu kaltebera izendatzeko, baldin eta lurralde horietan dauden jariatzeek mapetan jasotako urak ukitzen badituzte eta kutsatzen ahal badituzte, asko ez bada ere.

MITREDeK 2022ko maiatzaren 21eko BOEn argitaratu zituen mapa horiek, eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateak 2025eko maiatzaren 21era arteko epea du eremu kaltebera horiek izendatzeko. Hori foru dekretu bidez eginen da.

Arau proiektua jendaurrean jarriko da, pertsona eta erakunde interesdunek egoki iritzitako ekarpenak egin ditzaten. Jendaurrean jarri aurretik, informazioa biltzeko prozesu bat egiten ari gara bai nekazaritza sektoreko erakundeekin, bai eremu kalteberak kokatuko diren udal-mugarteetako udalekin.

2. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noiz aurreikusten du onetsiko dela eremu kaltebera horiek arautzeko foru agindu berria?

Aurreko erantzunean adierazi den bezala, Foru Dekretua izapidetze egoeran dago. Foru Dekretu horren bidez, nekazaritza jatorriko nitratoek sortutako kutsadura lausoarekiko eremu kalteberak eguneratzea onetsiko da. Argitaratzeko aurreikusitako data 2025eko maiatza/ekaina da.

3. Zer azterlan edo ekintza egin ditu irailaren 15eko 147E/2020 Foru Agindu hori onetsi zenez geroztik, dagoeneko egoeraren diagnostiko erabateko bat eskueran izateko, nitratozko kutsaduran parte hartzen duten eragile desberdinen erantzukizun zehatzak identifikatze aldera?

Azken 147E/2020 Foru Agindua eman zenetik indarrean dauden jarduketa planetan jasotako jarraibideekin jarraitu da.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak, INTIA sozietate publikoaren laguntzarekin, Nafarroako ubidearen bidez Itoizko urtegitik datozen urekin ureztatzen diren eremuen jarraipena egiten du. Horretarako, aurretiazko azterketa bat egiten da, honako hauek kontuan hartuta: uren balantzea, nitrato eta fosfatoen edukia, pH-a, eroankortasun elektrikoa, etab. Behin ureztatzen ezarri ondoren, jarraipena egiten segitzen da, hautatutako parametroen bilakaera zehazteko eta lurzoruetako eta

uretako mantenugaien edukiaren igoeraren edo jaitsieraren berri emateko, ureztatzearen efizientziaren berri emateko, etab. Lan horiek Cidacos ibaian egiten dira, ureztatzeak Sesman, Lerinen eta La Dehesa parajeetan eta Ribaforadako udalerrian.

4. Zer jarduketa-programa gauzatu ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak irailaren 15eko 147E/2020 Foru Agindu hori onetsi zenez geroztik, nekazaritza-jarduerekin eta -teknikekin koordinatuta, nitratoek uretan dituzten efektuak desagerrarazte edo minimizatze aldera? Zer emaitza lortu dira Nafarroan aitortutako eremu kaltebera bakoitzean?

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez berrikusi egin ziren nekazaritzako nitratoez ura kutsatua izan dezaketen eremuak, eta 2018-2021 aldian jarduteko programa onetsi zen.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren uztailaren 23ko 205/2019 Foru Aginduaren bidez, urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez onetsitako jarduketa programa aldatu zen, kalteberatzat izendatutako hiru eremuetan uren kutsadura murrizteko eta prebenitzeko. Izan ere, Europako Batzordeak hainbat zehaztapen eskatu zituen, eta programa zabaltzeko jardueretan labore berriak sartzeko eta nitrogenoa aplikatzeko muga batzuk berrikusteko aukera hauteman zen.

Ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren irailaren 15eko 147E/2020 Foru Aginduaren bidez, berrikusi egin ziren nekazaritza jatorriko nitratoz kutsatutako ura izan dezaketen eremu kalteberak, eta 2018-2021 aldirako jarduketa programak aldatu ziren, neurri gehigarriak eta indartuak sartzeko.

Gaur egun, indarrean jarraitzen du urriaren 4ko 247/2018 Foru Aginduaren bidez onartutako eta 205/2019 eta 147E/2020 Foru Aginduen bidez aldatutako jarduketa programak, harik eta, Urak nekazaritza iturrietatik eratorritako nitratoek eragindako kutsadura lausotik babesteari buruzko urtarilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretuaren 6. artikulua ezartzen duen bezala, lehenik eta behin, nekazaritza jatorriko nitratoek eragindako

kutsadura lausoarekiko kalteberak diren eremuak eguneratzea onesten den arte eta, ondoren, dagozkion jarduketa programak ezartzen eta abian jartzen diren arte.

Nafarroako Klima Aldaketarako Bulegoak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren kontrol puntuetan nitratoen edukiak denboran izan duen bilakaeraren ebaluazioa egin du. Kontrol puntu horiek kutsadura lausoak eragin ditzakeen lurrazaleko eta lurpeko ur-masei dagozkie, eremu kalteberetan egon ala ez. Lortutako emaitzek erakusten dutenez, oro har badirudi kutsadura ez dela ez okertuko, ez handituko, baina ez da hobekuntza esanguratsurik ere ikusten. Ur-masa batzuetan hobe zehaztu daiteke joera bat edo bestea, baina ezin da ondorioztatu nitratoek eragindako kutsadura lausoa gero eta handiagoa denik. Dokumentu honen amaieran, ondorio horiek irudikatzen dituzten irudikapen grafikoak jaso dira.

Lurpeko urei dagokienez, emaitzak grafikoki eta estatistikoki aurkezten dira, eta masa bakoitzeko puntu guztien batez bestekoaren urteko batez besteko aritmetiko osoa erakusten da, baita urteko maximoak ere. Azaleko uren kasuan, arroaren eta ur-masaren adierazgarri diren kontrol puntuen urteko batez besteko aritmetikoa erakusten da.

Adierazi behar da tratatutako datuen testuingurua zela dela:

- Lurpeko eta azaleko ur-masa bakoitzaren puntu guztiak (ukituak edo ez) irudikatuta daude, eremu kaltebera izan edo ez. 2006 eta 2023 artean eskuragai dauden datuak erakusten dira.

- Puntu kopurua asko aldatzen da masaren hedaduraren arabera; Ebroko igarobideak puntu-kontzentrazio handiagoa du.


- Erlazio proportzionala dago azaleraren eta agertoki hidrogeologiko desberdinen artean, eta horrek esan nahi du kutsaduraren aurrean portarea desberdina duten sektoreak daudela.

- Kontuan izan behar da batez besteko aritmetikoari, aldagai estatistiko gisa, muturreko balioek desproporzionalki eragiten diotela, eta seriea irudikatzen urrun egon daitekeela, are gehiago balioen banaketa oso asimetrikoa dela aintzat hartuta.


– Datuen heterogeneotasuna dago puntu bakoitzean, serie asko osatu gabe baitaude hainbat arrazoiengatik: laginketa puntua bertan behera uztea aurriagatik edo adierazgarritasunik eza-gatik, puntu bereko laginketa kopuru desberdina urteka, etab.

– Era berean, grafikoetan ur-ibilguen urteko batez besteko emaria (m^3/s) adierazten da, masa edo ibilgu desberdinei lotuta, batzuetan nitratoen kontzentrazioaren aldakuntzen berri eman baitezake.


LURPEKO UR-MASAK




Errioxa – Mendabiako alubiala (eremu kaltebera)




Ebroko alubiala: Tuterá – Alagón (eremu kaltebera)




Ebro – Aragoiko alubiala: Lodosa – Tuterá (eremu kaltebera)




Cidacos ibaiaren alubiala (eremu kaltebera)




Arga Behea ibaiaren alubiala (eremu kaltebera)




Arga Garaiko lurpeko ur-masa – Irati Garaia



Alaitz mendilerroko lurpeko ur-masa







Aragoi ibaiaren alubiala, Zangoza inguruan (eremu kaltebera)







Lokiz mendilerroko lurpeko urak eta Ega ibaiaren alubiala (eremu kaltebera)



AZALEKO UR-MASEN KONTROL PUNTUAK














Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00122. Galdera, Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak Estellerriko eskualdeko garraioa urgentziaz hobetzeari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

“Taldea mistoa” talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Estellerrian eskualdeko garraioa lehenbailehen hobetzeari buruz (11-25/PES-00122). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren lehen tasuna da 2012az geroztik mugaeguneratuta

dauden garraio emakidak ahalik eta lasterren lizitatzea.

Azken urteotan, lau emakida lizitatu eta martxan jarri dira:

- NAV-001, Iruña – Soria.

- NAV-002, Iruña – Tafalla. Tafallako eskualdea.

- NAV-003, Iruña – Tuteran – Zaragoza. Erriberabarrena.

- NAV-004, Iruña – Altsasu – Gasteiz. Altsasuko eskualdea.

Gainera, datozen asteetan Baztango emakida lizitatuko da.

Prozesua azkarrago egiteko eta herritarrei zerbitzurik onena eskaintzeko, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak laguntza teknikoa lizitatu du, falta diren hiru emakiden gainerako lizitazioetan laguntzeko: Iruña – Pirinioetako eskualdea; Iruña – Lizarra – Logroño – Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoiena; eta Iruña – Donostia, ipar-mendebaldeko eskualdea.

Laguntza horri eta departamentuaren esku hartzeari esker, hiru emakida horiek urtebeteko epean lizitatuko ditugula aurreikusten dugu. Emakida berria martxan jartzeari esker, udalerriek maiztasun handiagoko garraio zerbitzua izanen dute, herritarren egungo beharrei erantzunen dieten zerbitzuak eskaintzeko.

Era berean, eskualde horietan zerbitzua ematen duten enpresekin lanean ari gara, zerbitzuak hobetzeko doikuntza puntualak egiteko.

Horregatik, departamentuak Estellerriaren inguruko enpresari proposatu dio zerbitzuak autobus modernoagoekin emateko.

Aldi berean, zenbait udalerrirekin lanean ari gara, zerbitzuak doitzeko eta maiztasunak eta konexioak hobetzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00123. Galdera, Martzillan inauterian izandako gertaerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Martzillan inauterian izandako gertaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari idatziz erantzuteko galdera egin dio (11-25/PES-00123). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Jus-

tiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Foruzaingoko buruak jakinarazi duenez, 2025eko martxoaren 20an, Buruzagitzara bidalitako mezu elektronikoaren bidez, Nafarroako Parlamentuko galdera bat jaso zuten (erreferentzia zenbakia: 11-25/PES00123), martxoaren 6koa, Raquel Garbayo Berdonces andreak, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kideak, egindakoa. Galdera horretan, informazioa eskatu zuen Nafarroako Gobernuak hartu behar dituen neurriei buruz, Martzillako inauterietako asteburuan Adingabeak Behatzeko eta Hartzeko Zentroko adingabeak tartean zirela gertatutako egoeraren antzekoak saihesteko.

Tafallako Foruzain Etxeko buruari galdetu zaio gai horri buruz, eta jakinarazi du Tafallako Foruzain Etxeak herritarren segurtasuna arriskuan jartzen ahal duten gertakariak prebenitzeko zerbitzuak ematen dituela, Martzillako adingabeen

zentroaren inguruan aurrez aurreko errefortzu gehiagorekin. Patruilatze-lanak egiten dira goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan, eta, gainera, Esku Hartzeko Dibisioaren laguntza jasotzen da, astero patruila operatiboei laguntzeko, prebentzio-lanak indartuz.

Tafallako Foruzain Etxeko arduraduna harremanetan dago herriko alkatearekin, adingabeen zentroko arduradunekin eta udal agenteekin, segurtasuna arriskuan jartzen ahal duen edozein gorabeheraren aurrean egindako eskaerei erantzuteko.

Jarraian, joan den asteburuan herrian gertatutako egoeraren antzekoak saihesteko neurri prebentiboak aipatzen dira:

1. Eguneroko patruilak ugaritzea, Tafallako Foruzain Etxearen eremuan behar besteko estaldura eman ahal izateko gerora sortutako beste egoera batzuk gertatuz gero, batez ere arratsaldeko eta gaueko txandetan, une horietan izaten baita adingabe gehien udalerrian.

2. Kalez jantzitako patruilak lehenetsiko dira; izan ere, adingabeekin jardun behar bada, hurbiltasun handiagoa emanen zaie.

3. Erakundeekin, Udaltzaingoarekin eta udalarekin harremanetan egotea eta koordinatzea, Martzillan eginen diren ekitaldien eta jaien programa izateko, aurrez aurreko zerbitzuak programatzeko (herriko jaiak, zaldi azoka, inauteriak...) udal agenteekin eta Guardia Zibilarekin koordinatuta.

4. Martzillako Adingabeak Behatzeko eta Hartzeko Zentroarekin hitz egitea, eta ekitaldi eta jai horien aurretik adingabeei prebentziozko prestakuntza hitzaldiak emateko aukera aztertzea, jai progra-

metan (bigantxak, su artifizialak, zezensuzkoa, alkohol kontsumoa...) izan beharreko portaeraz eta parte hartzeko moduz kontzientziatzeko.

5. Ekintza edo hitzaldiei dagokienez, zentroarekin batera, mundu guztiarentzat orokorrakoak izanen diren hainbat hitzaldi eta espezifikokoak izanen diren beste hitzaldi batzuk aurreikusten dira, gai zehatzei buruzko laguntza premiak direla eta arreta handiagoa behar duten adingabe talde txikiagoei zuzenduak.

6. 2. eta 3. puntuetan deskribatutakoa aurreko urteetan ere egin da, baina ezarritako neurri errefortzu handiagoa emateko planifikatuko da. Horretarako, bilerak egin dira udalarekin, herriko jaiak, zaldi azoka eta abar egin aurretik.

7. Udaleko arduradunekin, adingabeen zentroarekin eta udal eragileekin aldizkako bilerak egitea, Martzillan prebenitzeko eta herritarren segurtasuna hobetzeko interesgarritzat jotzen diren eta detektatzen diren gorabeherak partekatzeko.

Neurri horiek berrikusi eginen dira, eta hobetzeko proposamenak eginen dira Martzillan bizikidetzara hobetzeko eta egonezina sortzen duten egoerak prebenitzeko, betiere udalarekin, polizia kidegoekin eta adingabeen zentroko arduradunekin koordinatuta.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00124. Galdera, Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroan diren lur arraroen mapa bat prestatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan dauden lur arraroen mapa bat egiteari buruz (11-25/PES-00124). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hurrengo webgunean ikus daitekeenez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak jendaurreko entzunaldi eta informaziozko prozesuan jarri du Lehengai Mineralen Kudeaketa Jasangarrirako I. Ekintza Planaren (2025-2029) proposamena. Epea ostiralean amaituko da, 2025eko apirilaren 4an:

<https://www.miteco.gob.es/es/energia/participacion/2025/detalle-participacion-publica-k-739.html>

Ekintza Planaren zirriborroak honako jarduketan hau jasotzen du:

“A13.M17. Meatzaritza Esploratzeko Programa Nazionala, 2025-2029.

Meatzaritza Esploratzeko 2025-2029 Plan Nazionala abian jartzea eta garatzea. Plan horren helburu nagusia da gure herrialdeko baliabide mineralen buruzko ezagutza hobetzea, bereziki EBk definitutako funtsezko lehengaiak kontuan hartuta, CRMaren 19. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Espainiako Estrategian (EECTI) ezarritako printzipioekin bat etorritik, baita Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzako Estatuko Planaren (PEICTI) eta Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren (PNIEC) 5.7 neurrian (“Energia eta klimaren arloko ikerketa eta berrikuntza laguntzeko tresna berriak”) ezarritakoarekin ere.

Programa IGME-CSICek zuzenduko du, lurpea ikertzeko eta aztertzearen erreferentziarako zentro tekniko eta zientifikoa den aldetik, dauden inbentarioak eguneratu eta lehentasunezko esplorazio eremuak identifikatu ahal izateko.

Estatuko Administrazio Orokorrek (i) meatze-baimen eta -emakiden titular edo sustatzaile diren enpresek programa honetan parte hartzea sustatuko du, laguntzak emateko agindu baten bidez. Era berean, (ii) Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia erkidegoen arteko koordinaziorako behar diren mekanismoak ezarriko dira, eta komunitate zientifikoak parte hartzen duela bermatuko da”.

Beraz, adierazi behar da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Nafarroako Gobernuaren laguntza eskatzen duenean, Nafarroako Gobernuak horretarako prest egonen dela.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00125. Galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa).

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea hitzarmenik sinatu den ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen SCRAP-EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa), 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00125), ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboarekin (EEZSK) sinatutako hitzarmenari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Gobernuak sinatu al du hitzarmenik ECOEMBESen ontzien eta ontzietako hondakinen EEZSKrekin (ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboa)?

Bai, eta 2025eko otsailaren 12an sartu zen indarrean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroan jasota dagoen bezala.

2. Hitzarmen horretan inola ere aipatzen al da zer-nolako egoera eratorriko litzaiekeen ontzibilletaren gaineko eskumena duten toki-entitateei, hitzarmenaren indarraldian zehar gordailutze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezartzetik?

Ez.

3. Erantzuna baiezkkoa baldin bada, zer ondorio aurreikusten da izan litezkeela baldin eta Nafarroan gordailutze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezarriko balitz?

Ez dagokio.

4. Erantzuna ezezkoa baldin bada, hitzarmenari lotzen ahal zaizkion toki-entitateentzat zer ondorio juridiko suerta litezke Nafarroan gordailutze-, itzultze- eta berrerabiltze-sistema bat ezartzetik?

Sinatutako hitzarmenaren 21. artikularen arabera, hura aldatzeari dagokionez:

“Hitzarmen honen edozein aldaketa, baimendutako EEZSK berri baten atxikimenduz, alde aurretik atxiki gabeko toki-erakunde baten atxikimenduz, kudeaketa-modalitatearen aldaketaz (hitzarmen honetan itundutako aldaketa-aukeren barruan) edo testuan jasotako beste edozein prozesu operatiboz bestelakoa bada, alderdiek aho batez hartuko dute, eta eranskin gehigarri bat txertatuko da. Eranskin hori hitzarmenaren testuaren zati banaezina izanen da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

EEZSKren baimenaren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada eta aldaketa horrek hitzarmen honetako xedapenetan eragina badu, alderdiek hitzarmenean sartu beharko dituzte, eranskin bat txertatzearen bidez.

Era berean, legezko xedapen batek edo erabaki judizial batek hitzarmen honen gauzatzean aldaketaren bat eragin badezake, alderdiek konpromisoa hartzen dute berehala beste alderdiari jakinarazteko eta behar diren neurri guztiak hartzeko hitzarmena gauzatzeko jarraituko dela ziurtatzeko, dagokion legezko xedapenean edo erabaki judiziallean ezarritako baldintzen eta epeen arabera. Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute antzeko klausula bat sartzeko beren hitzarmenetan eta/edo hirugarrenekiko kontratuetan.

Alderdiek adostu dute hitzarmena berrikusteko arazoietako bat izanen dela kostuei buruzko azterlan independenteak edo txosten teknikoak eskatzea justifikatzen duten inguruabarrak gertatzea, baldin eta hitzarmen honetan ezarritako baldintzaren bat aldatu behar bada. Kasu horretan, alderdiek konpromisoa hartzen dute negoziazioaldi bat irekitzeko, egin beharreko aldaketei buruzko adostasuna lortzeko eta aldaketa horiek dagokion eranskinaren bidez txertatzeko. Eranskin hori idatziz formalizatu beharko da, eta bi alderdiek sinatu beharko dute”.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00126. Galdera, Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoa sartzeko araudiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako toki-entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoa sartzeko araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko apirilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 11-25/PES-00126 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horri buruz, Nafarroako Gobernuako Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak jakinarazi du Barneko Giza Baliabideen Zerbitzuak honako hau adierazi duela:

Kontsultan aipatzen den zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaz gain, 23/2018 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

“Foru lege hau indarrean sartzetik denetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emanen ditu; batez ere, Nafarroako Foruzaingoko langileen prestakuntzari, lanpostu-betetzeari, bigarren jarduerari, lanaldiei, ordutegiei eta ordainsariei buruzkoak”.

Bi xedapen horiek konbinatuta, eta polizia arloan bakarrik, erregelamendu izaerako xedapen asko

erator daitezke, eta ezin zaie aldi berean heldu, bai edukiaren bai egiteko prozesuaren konplexutasuna dela-eta (aurretiazko kontsulta publikoa, negoziatzioa, informazio publikoa, memoriak, txostenak, Nafarroako Kontseiluaren irizpena). Egoera horren ondorioz, Foru Legeak jasotzen dituen xedapenen erregelamenduzko garapen mailakatua egiten ari da. Hala, jada onetsi zen lanaldiei, ordutegiei eta ordainsariei buruzko erregelamendua, premiazkoe-na zena, eta egiteko prozesuan daude lanpostuak betetzeko erregelamendua eta Nafarroako Foruzaingoko arauzko armak arautzen dituen Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren apirilaren 5eko 56/2017 Foru Aginduaren aldaketa.

Bestalde, Barne Zuzendaritza Nagusiaren jarduketara-esparruan, beste erregelamendu batzuk garatzen ari dira, hala nola Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorra, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko suhiltzaile edo suhiltzaile-kabo lanpostuak betetzen dituzten langileentzat bigarren jarduerako egoera arautzen duen maiatzaren 30eko 43/2018 Foru Dekretuaren aldaketa eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolaketaren eta funtzionamenduaren erregelamendua. Era berean, Suhiltzaileen Zerbitzuan sartu eta hornitzearen arloan eta 112 SOS Nafarroa Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren kudeaketan arau aldaketak eska ditzaketene beste gai batzuk lantzen ari dira.

Azaldutako guztiatik ondoriozta daiteke Barne Zuzendaritza Nagusia ahalegin handia egiten ari dela erregelamenduzko garapenen arloan, eta, adierazi den bezala, ezinezkoa dela indarrean dauden araudiak eskatzen dituzten erregelamenduzko garapen guztiei aldi berean heltzea. Ondorioz, une honetan ez dago aurreikusita kontsultan aipatzen den erregelamendua izapidetzen hastea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00127. Galdera, Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Tuterako Ospitaleko eskanerraren matxurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 14ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00127): otsailaren 14tik 19ra bitarte eskanerra matxuratu izanak nola eragin du Tuterako Reina Sofia Ospitaleko erradiologia zerbitzuaren lanean, eta zer irtenbide planteatu dira?. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Reina Sofia Ospitaleko OT (edo eskanerra) matxuratuta egon zen egunetan, ospitaleko Erradiologia Zerbitzuak bere lana egiten jarraitu zuen, eta normaltasunez jakinarazi zituen gainerako miaketa erradiologiko guztiak (EMN, ekografiak, mamografiak...), eta mamografiaren eta ekografiaren hitzorduak areagotu zituen, egun horietarako programatutako OTak ezin baitziren egin.

Aldi horretarako programatutako eta egin izan ez ziren OT guztiak hurrengo bederatzi egunetan birprogramatu eta egin ziren.

Urgentziazko OTen kasuan, Ospitale Unibertsitarioko Erradiologia Zerbitzuarekin koordinatu zen horiek egitea Reina Sofia ospitaleko eskanerra matxuratuta egon zen egunetan. Gainerako jarduerak normaltasunez egin ziren.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

